

HARITZ LARRAGETA

# ANNA KOPEK

eta matrioxken kondaira



erein

Marko

ILUSTRAZIOAK  
Marko | Maëla

# ANNA KOPEK

*eta matrioxken kondaira*

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2022ko maiatzean*


Diseinua eta maketazioa: Erein argitaletxea  
Azaleko eta barruko ilustrazioak: Marko | Maëla

© Marko | Maëla, ilustrazioena  
© Haritz Larrageta, testuarena  
© EREIN. Donostia 2022, edizioarena

ISBN: 978-84-9109-805-8  
L. G.: D 505-2022

EREIN Argitaletxea  
Tolosa Etorbidea 107  
20018 Donostia  
T 943 218 300  
e-posta: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)  
[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Gertu  
Zubillaga industrialdea 9  
20560 Oiñati, Gipuzkoa  
T 943 783 309  
e-posta: [gertugrafika@gmail.com](mailto:gertugrafika@gmail.com)  
[www.gertu.net](http://www.gertu.net)



HARITZ LARRAGETA

# ANNA KOPEK

*eta matrioxken kondaira*

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla

erein



# I

## Bidaia baten hasiera



**A**нна Kopek ezagutzen duzue?  
Uxuek eta Jokinek ere ez. Baina, hala ere, berak dira haren izenean hitz egin dezaketen bakarrak.

Has gaitzen hasieratik.

Ikasturtea bukatu berritan, amak Jokini eta Uxueri baieztatu zien Moskura joan beharko zutela. Ama kazetaria da, eta egunkariak berriemaile nahi zuen Errusian jokatuko zen munduko futbol txapelketan. Eta Mosku Errusiako hiriburu eta hiririk inportanteena denez, bertan jokatzeoak ziren hainbat partida: tartean, munduko txapelketako final handia. Eta ama norabait bidaltzen duten

gehientsuenetan bezala, harekin joan beharko zuten Jokinek eta Uxuek.

Baina, itxaron une batez; nortzuk dira Jokin eta Uxue?

Nafarroan, Sorakoitz izeneko herri txiki batean bizi diren anai-arrebak dira. Bederatzi urte ditu Jokinek, eta hamahiru Uxuek.

Jokinek hirugarren maila bukatu berri du. Ez da oso ikasle ona, esan beharra dago. Denbora gehiena marrazten ematen du, eta ez dio inguruan gertatzen ari denari kasu handirik egiten. Marrazkilari fina dugu. Komikiak marraztea gustatzen zaio: abenturazko komikiak gehienbat. Normalean pertsonaia normalak baliatzen ditu, baina, beste batzuetan, dragoiak eta zaldunak dira protagonistak. Eta, zenbaitetan, arrebaren laguntzaz, eskaneatu eta sarera igotzen ditu lagunak ikus ditzaten. Oso trebea da Uxue teknologia berriekin. Jokin, ez. Jokini ez zaizkio horrelako gauzak batere interesatzen. Nahiago ditu komikiak eta, noizean behin, pilotan jokatzea. Zango motzak ditu eta bere besoak ez dira oso luzeak, baina gustura ibiltzen da lagunekin frontoian jolasean eta solasean.

Uxue mugituagoa da. Beti dabil gauza guztiekin endredatzen. Bere kasa ikasi zuen ordenagailuak destripatzen, eta bideo-jokoetan oso abila da. Baina ez da hori egiten duen gauza bakarra: eskualdeko xake eta futbol taldeetan dabil eta irakurle aseezina ere bada. Hainbeste gauza buruan, zenbaitetan ez da ikasketetan aski zentratzen, eta espero baino justuago ibili da institutuko lehenengo ikasturtean. Baina oso neska azkarra da, begi-bistakoa da hori. Anaiari bezalaxe, asko gustatzen zaizkio abenturazko istorioak. Eta, hari bezalaxe, ez zaio batere gustatzen amaren lanagatik bidaiatu beharra, herritik kanpo asteak ematea eta, finean, haien plan guztiak bertan behera utzi behar izatea.

Arropaz gain, komiki batzuk, pilota, boligrafoak, errotuladoreak eta lauzpabost koaderno txiki sartu zituen Jokinek maletan. Arrebak, berriz, portatila eta udan irakurri nahi zituen hiru liburu. Dena txukun gordeta zuelarik hurreratu zen anaia-  
ren logelara:

—Zer uste duzu, Errusian ez dutela koadernorik saltzen? —galdetu zion prestatzen ari zen maleta ohe gainean ikustean—. Eta ez dut uste pilotan



jokatzeko inor topatuko duzunik... Nirekin, behintzat, jai duzu.

Jokini ez zion grazia handirik egin arrebaren komentarioak. Baina beti ibiltzen ziren elkar zirikatu nahian.

—Eta zuk, zer daramazu?

—Zer axola zuri? Nire gauzak.

—Ordenagailua –esan zion burlati.

—Eta beste gauza batzuk... Gainera, ziur naiz momenturen batean zerbait bidaltzeko edo blogera igotzeko laguntza eskatuko didazula.

Etxeko tinbrea entzun zen bat-batean.

—Afaltzera! –hots egin zien amak egongelatik.

Pizzak zituzten afaltzeko. Gauza asko zituzten hurrengo egunerako prestatzeko eta oso gogo gutxi kokinatzeko. Eta guztiei gustatzen zitzaizkien ondoko herriko taberna batek prestatzen eta banatzen zituen pizzak. Jokinek beti lau gaztaduna eskatzen zuen; Uxuek, zizaduna. Eta amak bietatik jan ohi zuen.

Afaltzen ari zirela, anai-arrebei oso arraroa egingen zitzaien pentsatzea hurrengo egunean Moskurantz joango zirela hegan, hura izango zela asteetan etxean afalduko zuten azkeneko aldia.

Afaria bukatutakoan, bien artean jaso zituzten kutzak eta edalontziak eta beren logeletara joan ziren zuzenean, biharamunean goiz jaiki beharko baitzuten. Baina bazekiten biek kostako zitzairela lo hartzea. Jokinek Asterixen komiki bat eraman zuen ohera, eta Uxuek misteriozko liburu bat. Hamabiak pasatxo itzali zuen bere mesanotzeko lanparatxoa Jokinek, eta pixka bat beranduago lokartu zen arreba.

Goizeko zazpiak. Altxatzeko ordua zen. Hastear zen beren bizitzak aldatuko zituen abentura.

—Altxaaaaaaaa... —entzuten zitzaion amari korridorean alde batetik bestera.

Bigarren aldiz entzundakoan jaiki zen Uxue. Jokinek, aldiz, nahiago izan zuen izaren azpian ezkutatatu. Goizegi zen eta ez zuen bidaiatzeko batere gogorik. Begiak itxi zituen eta erdi lo geratzen ari zela, kasik bere ametsetara bueltatzen ari zela, desestali zuen arrebak.

—Ezin zara hemen geratu —esan zion irribarretsua.

—Aiiiiiii... Baina nik ez dut inora joan nahi. Utzi ni bakean.

Sukalderantz eraman zuen arrebak ia bultzaka korridorean barrena.

—Itxaron, komunera joan behar dut —protestatu zuen Jokinek artean begiak erabat zabaldu ezinik.

Gutxiegi egin zuen lo. Ia begiak ireki gabe pixa egin ostean eskuak eta aurpegia garbitu zituen, baina ez zen lo aurpegia ezabatzeko aski izan. Sukaldean zituena zain Uxue eta ama. Kafe kikara zuen amak eskuan, poltsan paper guztiak ote zituen konprobatzen ari zen bitartean.

—Ai, non dago Jokinen pasaporteak? —hitz egin zuen amak bere kolkorako—. Hemen dago, eskerrak.

Egunero hartzen zituen zerealak jaten ari zen Uxue, eta Jokinen aurpegia ikusteak eragin zion barrigura kontrolaezinaren ondorioz, esne marra bi eskapatu zitzaizkion ezpain-ertzetatik. Irribarre egiten saiatu zen Jokin baina erdi lo zegoen artean.

—Azkarrago ibili beharko duzu, maitea —esan zion amak Jokini begiratu ere egin gabe.

Azeleratuta zebilen azken gauzak prestatzen, dena bere lekuan zegoela ziurtatzen. Zurrunbiloa zirudien patxadaz gosaltzen ari ziren seme-alaben inguruan.

—Zazpiak eta laurden: ontzi-garbigailuan guztia utzi eta zoazte janztera. Hamar minutu dituzue!

Uxuek eta Jokinek, arropak jantzi zituzten eta agur esan zieten beren logelei. Egun asko ziren etxetik kanpo. Maletak hartu eta arrastaka eraman zituzten korridorean zehar. Amak ordurako irekita zuen kaleko atea.

—Azkarrago; ezin dugu tren a galdu.

Taxi batek eramango zituen Iruñeko tren geltokira, eta trenak eramango zituen Madrilera. Bertan, beste taxi bat hartuko zuten aireporturaino, eta handik, eguerdian, Moskurantz abiatuko ziren.

Hegazkinez askotan bidaiatzen baziren ere, Jokini beti ematen zion beldurra aireratzeko unek. Aireratzek eta lur hartzek. Hegazkina mugitzen hasitakoan eskutik heldu zion fuerte-fuerte arrebari eta ez zion askatu minutu batzuk pasatu arte, hodeiak goi-goitik ikusi arte.

Bidaia nahiko luzea zen: bost ordu eta laurden emango zituzten airean. Ordubete baino lehen, lo seko zegoen Jokin. Amak bere betaurrekoak eta portatila atera zituen eta laneko kontuak idazten hasi zen.

—Lan pilo bat izango dut, Uxue. Jokinekin ordu asko pasa beharko dituzu hotelean.

Alabak ez zion kasurik egin. Leihotik ari zen begira. Hodeien artean, Pirinioak ikusten ziren. Bidaiazera ohituta egonik ere, oso arraroa egiten zitzaion mundua horrela ikustea: ez zitzaion benetakoa iruditzen, maketa zirudien. Ondoren, amak poltsan zeraman Moskuko bidaia-gida irakurtzen hasi zen, eta pixkanaka-pixkanaka hiriak forma hartu zuen bere buruan. Altxatuz joan ziren bere irudimenean katedralak eta antzoki ikusgarriak; pizten ari zitzaion Moskurekiko interesa.

Lur hartzeaz zeudela esnatu zen anaia.

—Heltzeaz gaude, Jokin —esan zion amak aha-  
peka.

Lur hartzeko momentuan heldu zion berriz eskua Jokinek arrebari, eta gurpilek lurra jo zutenean askatu zion. Irribarretxo bat eskapatu zitzaien bie elkarri begira.

Oso motel jaitsi ziren bidaiariak. Nekatuta ziruditen gehienek. Nekatuta zirudien amak ere Uxueren begietan. Maleten bila zihoazen aireportu erraldoian barrena.

—Erlojuak orduan jarri beharko dituzue: ordu-bete beranduago da hemen —esan zien amak.

—Lasai, ama. Telefonoak automatikoki egiten du hori.

—Denboran bidaiatzen ari gara... —esan zuen Jokinek ahots arraro bat baliatuz.

—Baboa —erantzun zion erdi barrezka Uxuek.

Xeremetievoko aireportua Errusiako handiena da. Eta jendez beterik zegoen; jatorri guztietako jendez beterik, munduko futbol txapelketak kontinente guztietako pertsonak erakartzen baititu. Batzuen jatorria erraza zen asmatzen, haien herrialdeetako taldeen elastikoa jantzita zeramate-lako. Baina gainerakoekin jolasa zen, Uxueren eta Jokinen buruetan, pertsona haiek nondik heldutakoak ote ziren imajinatzea: Brasildik? Italiatik? Handia zen aireportua eta handiak ziren zinta garraiatazailan aurrera zihoazenean ikusi zituzten kartelak.

—Zer dira ikur horiek? —galdetu zuen Jokinek harrিতuta.

—Hala idazten dute hemen, zirilikoz; beste letra mota batzuk dira.



еты  
мска  
ната Б  
стиная

# Вылет ы

Лиссабон № 1196 № 8977 № 34	Париж № 38966
Салоники № 51259	Фонтараби № 7865
Пхукет № 879 № 544	Марсель № 5637 № 9107
Санкт-Петербург № 897 № 7865 № 67	Миолуз № 23
Барселона № 9467426	Ним № 48328 99

Аэропорт  
Шереметьево

MARKO  
MAELA

—Bai zera! —hasi zen anaia protestaka—. Horrela ez dago ezer ulertzerik! —Aurrerago zegoen beste kartel bat ikusi zuen orduan—. Eta zer da irudi itsusi hori?

—Matrioxka bat da. Errusiako panpina tradizionala —erantzun zion Uxuek.

Panpina horiei buruz zertxobait irakurri zuen bidaia-gidan: matrioxka baten barruan hainbat panpina daude, bata bestearen barnean, ireki ezin den txikitxo bat agertzen den arte. Ezaguna zuen kartelekoa:

—Hori Peterhofeko Matrioxka da. Orain arte San Petersburgoko museo batean egon da, baina Moskura ekarriko dute aurten. Matrioxka horren panpina txikiena tamaina berekoa den Obdorskeko matrioxkarenarekin lekuz aldatuz gero, denbora...

—Ez zait interesatzen, Uxue.

—Baina Obdorskeko matrioxka aspaldi desagertu zen eta...

—Uxue... Berdin zait.

Bazekien Uxuek zirikatzeagatik egiten zuela anaiak eta, berak, bueltan hortzak erakutsi zizkion txakur baten antzera. Irribarre egin zuten biek gero.